

ZUMAIA

800 gramoko sagarra

23.08.08 -

Argazkian ikus daitekeen sagar ederrak 800 gramo pisatzen ditu, 14 zentimetroko diametroa du eta 9,5 zentimetroko altuera. «Anaia Jose Luisek San Jose kalean duen baratzean atera da. Tamaina handiko beste sagar batzuk atera zaizkio, 500, 600 eta 700 gramokoak, baina hau bezain handirik ez». Fruitua jateko presa handirik ez dute familian: «Pixka bat bigundu zain gaude. Lastima da jatea, baina ez dugu usteltzen utziko. Zaporea ez dakigu nolakoa izango duen, baina usaina ederra du.», diote. DV

